

Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Buletina

Iraila 2024 - 28. zenbakia

Hiru hilean behin gizarte-eremuetako profesionalen artean zabaltzen duen ekimena jarduera soziosanitariorako gaurkotasuneko eta intereseko edukiak Euskadin.

ERREDAKZIOA

Agurra

Kaixo guztioi

Ohore handia da niretzat neure burua Arlo Soziosanitarioko zuzendari berri gisa aurkeztea. Lanean hasi nintzenetik berotasun eta babes handia sentitu dut zuen aldetik, eta, beraz, eskerrik beroenak eman nahi dizkizuet. Zorionekoa naiz gure komunitatearen ongizatearekin hain konprometitua dagoen eta grinatsua den talde batekin bat egiteagatik.

Niretzat, arlo soziosanitarioa esparru profesional bat baino askoz gehiago da; pertsonen zaintza integralarekiko benetako konpromisoa da. Nire ibilbidean zehar ikasi dut gure lana osasun-premiei erantzutetik haratago doala. Bizitzako atal eta etapa guztiak barne hartzen dituen etengabeko laguntza eskaintzea da helburua. Gure eguneroko lanean, osasun-tratamendu eraginkorra ez ezik, ongizate orokorrari mesede egingo dion babes emozional eta soziala ere ematea bilatzen dugu.

Ikuspegi integral hori funtsezkoa da arreta benetan eraginkorra eta gizatiarra emateko. Nire helburua zuetako bakoitzarekin lan egitea da, norabide horretan aurrera egiten jarraitzeko, gure prozesuak hobetuz eta topatzen ditugun erronkei aurre eginez. Ziur nago arrakasta gure arteko lankidetzan eta ideien etengabeko elkartrukean eta elkarren babesean oinarritzen dela.

Gure arteko lankidetzan zehar, aukera ugari izango ditugu elkar hobeto ezagutzeko eta hobetzen nola jarrai dezakegun aztertzeko. Hemen nago zuek behar duzuen laguntzeko eta, elkarrekin, artatzen ditugun pertsonen bizitzan benetako hobekuntza eragingo duten estrategiak eraikitzeko.

Biziki eskertzen dut talde honetako kide izateko eman zaidan aukera, eta gogotsu nago zuekin guztiarekin lanean hasteko. Ez izan zalantzarik edozein ideia, galdera edo kezkaekin niregana hurbiltzeko; nire atea beti egongo da zabalik.

Eskerrik asko zuen babesagatik eta hartu nauzuen berotasunagatik. Ziur nago elkarrekin gauza handiak lortuko ditugula.

Besarkada bat,



Mamen Álvarez Zubizarreta
Arreta Soziosanitarioko Zuzendaria (Osasun Saila)

BERRIAK

Bakardadearen eta isolamendu sozialaren aurkako ekintza komunitarioa



Parte-hartze soziala osasun-politikan



Osasunaren Lehen Mailako Arretaren garrantzia



Haurrak babesteko Europako sistema koordinatua eta eraginkorra




Espetxe-irteeraren eta etxegabetasunaren arteko lotura



Desgaitasuna duten pertsonak: desinstituzionalizazioa eta komunitate-bizitza




Australia: isolamendu geografikoa eta soziala adineko pertsonen artean



Desgaitasun intelektuala: oztopoak Ingalaterrako osasun-zerbitzuetan




Desinstituzionalizaziorako urratsak



Familia-politiken Europako erronkak




Desgaitasuna duten pertsonen aurkako delituen infrasalaketak



Ingurune irisgarriak: desgaitasuna duten pertsonak, mugikortasun murriztua eta adinekoak



Komunitate osasungarria. Irlandako esperientzia bat



Bizitza-luzeraren potentziala: bizi-zikloaren ikuspegia eta gobernuarteko lidergoa



Editore taldea
Catarina Paz Camaño eta Ibon Totorikaguena Iturriaga

Datu Pertsonalak Babesteko 2016/679 Araudi Orokorrak xedatutakoa betez, Arreta Soziosanitarioaren buletin hau horretarako baimena eman duzulako jasotzen duzula jakinarazten dizugu.

Buletina jasotzen jarraitu nahi ez baduzu, baja hemen eman dezakezu dirsaludsociosan@euskadi.eus helbidera idatzi ezker. Halaber, dagozkizun eskubideak erabiltzeko helbide honetara jo dezakezu: Osasun Sailaren Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritza, Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.